


BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



IRUÑEKO UDAL ARTXIBOA. ARAZURI BILDUMA. JULIO CIA URIZ.

«JITO ALAI» PILOTALEKUA, 1935EAN

Julio Cia Uriz (Agoitz, 1889 - Iruñea, 1957) argazkilari afizionatua izan zen hasieran, anaiarekin batera aroztegi mekaniko bat ezarri zuena. Argazkilaritzan profesionalki aritzeko erabakia Gerardo Zaragueta argazkilariarekin zuen adiskidetasunak bultzatu zuen, Iruñeko Gaztelu plazan estudio bat baitzuen. Haren irudiek Iruñeko hiri-eraldaketa dokumentatu zuten, eta, askotan, Nafarroako hiri-buruko Udalak berak enkargatu zituen. Gainera, Katedraleko Kabildoarentzat lan egin zuen 1930eko hamarkadan. Artikulu honekin batera datorren irudia 1935ean hartu zen eta "Jito alai" irudikatzen du, ijitoen komunitateak pilotan jokatzeko erabiltzen zuen frontoia, bere izenak adierazten duen moduan. Frontoi hau 1952an eraikitako Labrit pilotalekuaren atzean dago.